

Iparralde a bertan

21. edizioa

2022

martxoa

1 • 8 • 15 • 22

Martxoak 1

Asteartea. 19:00etan

Francoren mende kantatzen genuenean



Colette Larraburu idazle eta kazetariak euskal kantagintza garaikidearen historiaren zati bat azaltzen du bere azken liburuan *Francoren mende kantatzen genuenean*. Francoren diktadura garaian, beren hizkuntza debekatua zegoela, Ipar Euskal Herriko abeslari batzuk (Peio & Pantxoa, Etxamendi & Larralde, Guk, Manex Pagola, besteak beste) Hego Euskal Herrira joan ziren kantatzera. Larraburuk istorio horretan protagonistak izan diren kantari zenbaitzuekin saio berezia eskainiko digu.

Idazle eta kazetaria: **Colette Larraburu**
Abeslariak: **Peio eta Pantxoa, Beñat Sarasola, Joanes Borda, Panpi Lacarrieu, Patxika Erramouspé, Gexan Alfaro**

Martxoak 8

Asteartea. 19:00etan

LUMI elektro inde taldea da, 2014an sortua. Ahotsean, **Nahia Zubeldia** (Unama), eta makinetan, **Manu Matthys** (Matthys, Odei) dira. Taldeak aski urrunekoak diren bi bide biltzen ditu: Nahiarena, euskal kantuen eta folk melodien ingurukoa, eta Matthysena, arrunt elektronikoa. Beren ibilbidean barna, soinua gero eta gehiago lantzen dute, eta, aldi berean, organikotasunera bideratzen.

Lehen EPa 2014an atera zuten, eta lehen LPa, *Itzal zikinak*, 2019an, biak Moï Moï diskoetxearekin.

Orain, *Bezperen Dirdira* disko berria prestatzen ari dira, udaberri hontan argitaratuko dutena, Usopop diskoetxearekin. Proposatutako kontzertu hontan, talde lapurtar honen unibertso musikala (ber)ezagutzeko aukera izanen da.

LUMI Bezperen Dirdira



Martxoak 15

Asteartea. 19:00etan

ETXETABURU



Etxetaburu.

Etxekopar - Galtzetaburu.

Mixel eta Jean Kristian.

Xiberoa eta Baxe Nafarra.

Haize epailea eta hauspo eragilea.

XVIII. mendetik XXI. era.

Kantua, Xirula, flautak eta perkusioa:

Mixel ETXEKOPAR (Gotaine - Zuberoa)

Esku soinua, botza:

Jean Kristian GALTXETABURU (Gamarte - Nafarroa Beherea)

Bertso zahar eta berriagoak.

Irria eta ziria.

Guzientzako pentsatua:

Ema-gazteak eta zaharrak

Giz-onak eta tzarrak...

Martxoak 22

Asteartea. 19:00etan

Oskar Alegriaren
laburmetraia:

Erleketa



Eleketa, ahozko oroimenak erakusketaren kariatara, Euskal Kultur Erakundea-k (EKE) zinegile batzuei ahozko memorioaren gaia esploratzea eskatu die. Gaualdi hau, *Erleketa* laburmetraia deskubritzeko eta **Oskar Alegria** filma horren egilearekin trukatzeko parada izanen da.

Erleketa da hitzak sortu aitzin existitzen zen mundura bidaia bat. Hitzak letrazkoak ez ziren garaian, paisaiaren musikan zaunkak, orroak, uluak eta txioak nagusitzen ziren. Gure soinuak barne. Itsasoak, mendiak eta haizeak mintzaira zuten eta guk haien oihartzuna. Gure azken hitzen eramaileak erleak izan dira. Izan dira, diogu. Egun gure ixiltasunaren zaindariak dira.



Urdaneta kalea 9
20006 Donostia
Tel.: 943 112 893
kmk.gipuzkoakultura.eus
programazioa@gipuzkoa.eus

 **KMK**
zuzenean >
Ekitaldia zuzenean jarraitu



Martxoak 1-25

Liburutegiko 1. solairuan

Erakusketa:

Francoren mende kantatzen genuenean liburuaren haritik

1970eko hamarkadan, Ipar Euskal Herriko emakume eta gizon abeslari batzuk, herritartasun eskubiderik gabeko guneetan, euskal kantua sartu zuten. Bereziki Hego Euskal Herrian, frankismoaren berunezko txapa jasaiten zuten lekuetan. Hainbat argazki, kartel, disko, irudi eta orroitzapen dokumentu gertakari horren eragileen eskuetatik bildurik, erakusketa honek garai hartako giroa ezagutzeko eta ulertzeko aukera emanen digu.